

KLIKLAP, FILM LABUR LEHIAKETA 2019ko ARAUDIA

INFORMAZIO OROKORRA

Kliklap azaroaren 15etik azaroaren 17ra gertatuko den **film labur express lehiaketa** da.

Lehiaketan izena eman nahi duten parte-hartzaileek 48 ordu izango dituzte film labur bat grabatu eta ekoizteko. **Azaroaren 15ean, 19:00etan** gaia aurkeztuko da eta parte-hartzaileen lanak gai horren ingurukoak izango dira. **Azaroaren 17an, 19:00etan** lanak aurkezteko epea bukatuko da.

Film laburrak Zinegin festibalaren kari proiektatuak izanen dira azaroaren 23an.

1. PARTE-HARTZEA

Parte-hartzea taldeka edo banaka egindo da. Taldeen kopurua ez da mugatua.

Talde bakoitzak edo pertsona bakoitzak film bat aurkezten ahalko du.

2. IZEN-EMATEA

Lehiaketan parte hartzeko, **aitzinetik izena eman behar da**. Ondoko informazioak bete beharko dira, Google forms-en bidez:

1. Taldearen izena
2. Taldearen arduradun baten izen-abizenak
3. Taldearen arduradunaren emaila eta telefono zenbakia
4. Taldearen kide guztien izen-abizenak

Izena emateko epea **azaroaren 15era** egonen da zabalik. Parte hartzaileari izen emate baieztapena igorriko zaio emailaz.

3. GAIA

Film laburren gaia azaroaren 15ean, 19:00etan jakinaraziko da, email baten bidez.

4. BALDINTZAK

Film laburra emandako gaiari oinarritu beharko da. Generoa askea da.

Film labur bakoitzaren iraupena **ez da 5 minututik gorakoa izango**, kreditu-izenburuak barne. 5 minutuko iraupena gainditzen duten lanek ezin izango dute saririk jaso.

Film laburrak euskaraz, euskarazko azpiztituluekin edo mutuak izan behar dira.

Film laburrak **48 orduz burutu beharko dira**.

Egindako film laburrak emailez entregatuko dira. Hurrengo formatuek lehentasuna izanen dute, dena den, beste formatu batzuk onar daitezke antolatzaileek egoki ikusten badute: **H.264 MP4 edo MOV** (1280×720 / 1920×1080).

Lehiaketa honetan edozein iruzur edo iruzur saiakera egingen duen parte hartzailea kanporatuko da.

5. EPEAK

Film laburrak helarazteko azken epea : **azaroaren 17an 19:00etan**

6. ADINGABEKOAK

Adingabeek parte har dezakete, gurasoen baimenaren froga emanez geroz. Horretarako, gurasoen baimen imprimakia bete eta info@zinegin-festibala.eu helbidera bidali behar da.

7. EGILE ESKUBIDEAK

Egile eskubideei dagokienez, obretan erabiltzen den materialak aske edo 'Creative Commons' lizentziaduna izan beharko du.

Izena ematen dutenek haien film laburrak Zinegin festibalan, festibalaren webgunean baita Kanalduden hedatzeko eskubidea uzten diete antolatzaileei.

8. EPAIMAHAIA ETA ARAUDIA

Epaimahaiaren erabakiak helegiterik gabekoak dira. Hautagaitza aurkezteak berekin dakar araudi honen eta epaimahaiaren erabakien onarpen oso eta baldintzarik gabekoa.

9. SARIAK

Film irabazleak Zinegin festibalaren garaian (azaroaren 21etik azaroaren 24ra) jakinaraziko dira.

1. saria: 500 euroko opari-txartela Camara dendan erabiltzeko
2. saria: 300 euroko opari-txartela Kompa informatika dendan erabiltzeko
3. saria: MUBI plataformarendako urte bateko harpidetza